



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN

Donostia Kirola



MEMORIA

2020




DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN  
Donostia Kirola



## **KIROLA ETA JARDUERA FISIKOA BIZIMODU OSASUNGARRIRAKO OHITURA**

## KIROL PRAKTIKA DONOSTIAN (KIROL OHITUREI BURUZKO INKESTAREN ARABERA (AZTERKETA HIRU URTEAN BEHIN EGITEN DA, ETA 2020AN EGIN BEHARKO LITZATEKE, BAINA PANDEMIA-EGOERAK 2021ERA ARTE ATZERATzea EKARRI DU), 16 URTEK GORAKO DONOSTIARRREN %73,84K KIROL EN BAT EDO KIROL-JARDUERAREN BAT EGITEN DU, GUTXIENEZ ASTEAN BEHIN, ETA SAIO BAKOITZEAN GUTXIENEZ ORDU-ERDI. EHUNEKO HORI %73KOA DA EMAKUMEEN ARTEAN ETA %75KOA GIZONEN ARTEAN..



<b>Donostian gehien praktikatzen diren kirol jarduerak, generoaren arabera</b>			
<b>EMAKUMEAK</b>		<b>GIZONAK</b>	
IBILTZEA	38,75%	RUNNING	24,36%
ARETO JARDUERAK	35,96%	TXIRRINDA	17,76%
GIMNASIOA	13,33%	GIMNASIOA	17,76,%
TXIRRINDA	10,88%	IBILTZEA	16,82%
IGERIKETA	9,55%	IGERIKETA	16,82%
RUNNING	8,43%	FUTBOLA	12,15%


## KIROL TXARTELAREN ABONUA



Pandemiak azken urteotako Kirol Txartelaren goranzko joera eten du, eta %6,4 jaitsi da abenduaren 31ko datuen arabera. Udalaren kirol-instalazioen batean (Kirol Txartela gehi Zuhaitzi, Tenis, Manteo, Mons eta Pio Barojako abonatuak) abonatura dagoen populazioaren ehunekoa ere jaitsi eta jaitsi egin da %27,4ra arte. Kasu honetan, %10,30 jaitsi da, batez ere, 2020an Zuhaitziko abonatuaren kopurua asko jaitsi zelako.

Abonaturako pertsona guztien %54 dauden familia abonamendu moten artean sartzen da. 2019an, guraso bakarreko familientzako abonua sortu zen, eta 2020an 92 familia harpidetu dira.

Auzoen araberako banaketari dagokionez, Antigua eta Amara Berri dira Kirol Txartelaren abonatu gehien dituztenak. Altza laugarren tokian dago, udal gimnasio berria irekitzeagatik 2019tik hona igoera nabarmena izan ondoren.


Azkenik, gizonen eta emakumeen arteko banaketa nahiko orekatua da, eta emakumeen ehunekoa pixka bat handitu da, dagoeneko abonaturako pertsonen %46,5 osatzen baitute. Nabarmenezkoa da, halaber, 65 urtetik gorako pertsona abonatuaren portzentajea handitzen ari dela, kopuru osoaren %9,7 (2019an baino %0,7 gehiago)








### Abonatuak auzoaren arabera - 2020




### Abonatuak adinaren eta generoaren arabera - 2020




## KIROL JARDUERETAKO KANPAINAK

Lehenik eta behin, azpimarratu behar da ezen, 2020an egoera korapilatsua izan arren, Donostia Kirolak bere kirol-kanpaina guztiak eskaintzen jarraitu duela, Covid19ren aurkako segurtasun-neurrien egokitzapenak egin dituela. Jakina, parte-hartze orokorra jaitsi egin da, neurri batean, instalazioak ixtean hainbat ikastaro bertan behera utzi direlako, eta, hein batean, izena eman duten pertsonen kopurua txikiagoa delako eta jardueretan kopurua murriztu egin delako.

Nolanahi ere, 30.000 pertsona inguruk hartu dute parte antolatutako hiru kanpainetako jardueraren batean. Udako kirol jardueren UDA kanpaina izan da gutxien jaitsi dena, aurreko urteetan baino %12 gutxiago bakarrik.












### UDA Kanpainako partaidetza



### Eskola Igeriketa kanpainako partaidetza









## UDAL KIROL INSTALAZIOAK

Udalaren kirol instalazioetan erregistratutako erabilpenen kopurua ia %50 jaitsi da, eta horrek hautsi egin du azken urteotako goranzko joera. Konfinatzean instalazioak ixtea eta eskolako eta federazioko entrenamenduak eta lehiaketak ez egitea izan dira jaitsiera horren arrazoi nagusiak. Beherakada bereziki nabarmena da futbol-zelaietan, ia jarduerarik gabe 2020ko martxotik. Paco Yoldi udal kiroldegia da oraindik ere donostiarrek gehien erabiltzen duten instalazioa.







### Igerilekua duten instalazioen erabilerak - 2020



### Igerilekurik gabeko instalazioen erabilerak- 2020







DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN  
Donostia Kirola



MEMORIA - 2020




## KIROL AGENTEAK: EZINBESTEKO ALIATUAK



## KIROLAREN SUSTAPENA

Donostia Kirolak emandako diru-laguntzen zenbatekoa %18 jaitsi da 2020an, ia herri-proba eta kirol-ekitaldi guztiak bertan behera utzi direlako.



Diru-laguntza horien %67,7 norgehiagokako prozeduraren bidez eman da (urteko deialdia), %31,7 diru-laguntza izendunak izan dira eta gainerako %0,6a zuzeneko diru-laguntzetarako erabili da.





## LEHIAKETA OFIZIALETAN PARTE HARTZEA



Lehiaketa ofizialetan (eskola kirola eta kirol federatua) parte hartzea oso maila altuetan mantentzen da, bereziki eskola kirolaren esparruan. Kirol federatua, lizentzia-kopuru globalari eutsi zaio, baina behera egin du pixka bat emakumezkoen lizentzia federatuen ehunekoak (batez ere senior kategorian, kadete eta gazteetan hazkunde-joerari eusten baitzaio).








## BERDINTASUNA SUSTATZEA KIROL FEDERATUAN



## HERRI PROBAK

2020an nabarmen jaitsi zen herri-probetako parte-hartzea, martxoaren 13tik aurrera ezin izan baitzen mota horretako kirol-probarik antolatu.



## KIROL EKITALDIAK

Osasun egoeraren ondorioz, antolatutako kirol ekitaldien kopurua ere oso txikia izan da eta, kasu gehienetan, gainera, publikorik gabea. Hala, 2020an, 11 kirol-ekitaldi izan dira hirian. Nabarmentzekoak dira Uliako Gimnastikako Krosa, Nazioarteko Igeriketa Txapelketa edo Kontxako estropadak.

KIROL EKITALDIAK 2020	HILABETEA
Gimnastica Uliako Krosa	Otsaila
Urrezko Kopa – Aizkolariak	Abuztua
Urrezko Kopa- Zaldi lasterketa	Abuztua
<u>Emakumeen futbolaren Europa Champions Finala</u>	Abuztua
Kontxako estropadak	Iraila
Europa League: Real Sociedad – Napoles	Urria
<u>Espainiako gurpil gaineko Eskrimaren txapelketa</u>	Azaroa
EHF Balonmano: BERA BERA-HC Zvezda	Azaroa
Europa League: Real Sociedad – AZ Alkmaar	Azaroa
Europa League: Real Sociedad – Rijeka	Azaroa
<u>Nazioarteko Igeriketa Txapelketa</u>	Abendua

**ELITEKO TALDEAK ( kategoria gorena kirol modalitate bakoitzean)**

2020an, zortzi kirol-modalitateko hamabost talde mantendu dira taldeen zerrendan, kirol-modalitateko goreneko kategorian. Atlético SS-ko softbol taldea desagertu egin zen, baina igo bya saskibaloian. Berriro ere emakumeen kirola nabarmentzen da, Donostia erreferente bihurtzen baitu arlo horretan.

<b>Modalitatea</b>	<b>Emakumeak</b>	<b>Gizonak</b>
ESKUBALOIA	BERA BERA	
FUTBOLA	REAL SOCIEDAD	REAL SOCIEDAD
BELAR HOCKEY	REAL SOCIEDAD	
SASKIBALOIA	IDK-GIPUZKOA	GBC
ATLETISMOA	ATLETICO SS	REAL SOCIEDAD
IZOTZ HOCKEY	CHH TXURI URDIN	CHH TXURI URDIN
CURLING	TXURI BERRI	TXURI BERRI
ARRAUNKETA	ARRAUN KIROLAK DONOSTIARRA	DONOSTIARRA

**URREZKO KIROL TXARTELA: 2020. ZEHAR GEHIEN NABARMENDU ZIREN  
KIROLARI DONOSTIARRAK**

<b>KIROLARIA</b>	<b>KIROLA</b>	<b>2020. URTEKO EMAITZAK</b>
Iñigo Martinez Albornoz	Mendiko eskia	Espainiako Kopa txapelduna
Nerea Diaz Doval	Badmintona	Espainiko BE badminton txapelduna
Koxme Burutaran Olaizola	Arraunketa	Europako 23 azpiko arraunketa txapelketan parte hartzea
Ander Balda Berra	Arraunketa	Europako jubenil mailako arraunketa txapelketan parte hartzea
Fernando Mitxelena Muguerza	Tiro egokituta	Espainiko tiro egokitutako txapelduna (Karabina 50m)
Imanol Garmendia Maiz	Arraunketa	Espainiko arraunketa mugikorra txapelketan zilarra
Irati Mitxelena Balerdi	Atletismoa	Espainiako txapelketan brontzea (Jauzi hirukoitza) Espainiako txapelketan zilarra (luzera jauzia)
Adrian Rocandio Peral	Atletismoa	Espainiko txapelketan urrea (4 x 400m)
María Mugica Zubeldia	Atletismoa	Espainiako txapelketan brontzea (100m hesiak)
Miren Lazkano Zuriarrain	Piraguismoa	Europako piraguismo Kopan eta txapelketan parte hartzea
Olatz Arregi Altuna	Piraguismoa	Europako piraguismo Kopan eta txapelketan parte hartzea
Unai Arrieta Aguirrezabala	Gimnasia Erritmikoa	Espainiako gimnasiako Kopan urrea
Iñigo Llopis Sanz	Igeriketa	Igeriketako 200m bizkarra modalitatean munduko errekorra
Xabier Mikel Azparren Irurzun	Txirrindularitza	Espainiko pistako txirrindularitza txapelduna (Madison)
Irakit Goenaga Arregi	Arraunketa	Espainiko arraunketa olinpikoko txapelketan brontzea (x2)
Martin Bartolomé Gutierrez	Arraunketa	Espainiko arraunketa olinpikoko txapelketan brontzea (x2)
Alex Prior Majon	Eskrima egokituta	Espainiako gorpil aulkiaren gaineko esgrima txapelduna (sable, florete eta ezpata)
Eduardo Blasco Alvarez	Sorospen eta Salbamendua	Munduko txapelduna Kirol salbamenduan
Sara Alonso Martinez	Atletismoa	Espainiako trail txapelduna



KIROLARIA	KIROLA	2020. URTEKO EMAITZAK
Natalia Ramirez Galvez	Hipika	Oztopoekin jauzien nazioarteko hipika txapelketan parte hartzea
Irati Zurutuza Renon	Atletismoa	Espainiako txapelketan zilarra (4 x 400m)
Gonzalo Fuentes Isasi	Duatloia	Espainiako Dutloi txapelduonordea
Clara Azurmendi Moreno	Badmintona	Europako Txapelketan parte hartzea

KIROLARIA	KIROLA	2020. URTEKO EMAITZAK
CH Txuri Berri	Curling	Espainiako txapelduna (emakumeen eta gizonezkoen absolutuak eta bikote mistoak)
Real Sociedad- Atletismo	Atletismoa	Espainiako klubaren arteko txapelketan brontzea
Bera Bera Eskubaloia	Eskubaloia	Ligako txapeldunak
Donostiarra	Arraunketa	Espainiako emakumeen batelaren txapeldunak
Atletico SS	Triatloia	Espainiako Distantzia Ertaineko Triatloi Txapelketan azpitxapeldunak



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN  
Donostia Kirola




## KUDEAKETA ARDURATSUA ETA JASANGARRIA



## PLANGINTZA ESTRATEGIKOA DONOSTIA KIROLA-N

PLANGINTZA ESTRATEGIKOAREN ESKEMA

**Donostia kirola**



KUDEAKETA AURRERATUARI  
BRONTZEZKO AINTZATES PENA



## **KUDEAKETA EKONOMIKOA**

### **2020ko aurrekontu arruntaren balantzea**

2020ko gastuen aurrekontuaren gauzatze-ehunekoa %70,77koa izan zen, aurreko urteetako baino txikiagoa. Hala ere, beherakada hori ez da kudeaketa arrazoiengatik gertatu, baizik eta osasun alertak instalazioak ixteak eragindako gastuen murrizketagatik (energia kontratua, instalazioen mantentze-lana, segurtasuna...).

Diru-sarrerren gauzatze-mailari dagokionez (aurreko urteetan % 100 inguru), 2020ko aurrekontuan aurreikusitakoaren % 74,35 bete egin zen, batez ere, instalazioak itxi eta ikastaroak bertan behera uzteagatik itzuli ziren zenbatekoak (863.999 €, itzulketetan).


Egoera hori dela eta, ez da iritsi erakundeak bere burua finantzatzeko duen helburura (%55 globalean, eta %65 autofinantzaketa funtzionalerako helburuan, hau da, emandako diru-laguntzen zenbatekoak zenbatu gabe).

Hala, Donostia Kirolaren autofinantzaketa-portzentajea %52,48 izan da 2020an, 2019an baino 2 puntu gutxiago. Autofinantzaketa funtzionala, berriz, 4,8 puntu jaitsi da 2019. urtearen aldean, eta %57,45era iritsi da.


Helburu estrategikoak bete ez diren arren, emaitzak positibotzat har daitezke, autofinantzazio-ehunekoa nahiko txikia izan baita, instalazioak ixteak ekarri zuen aurrezteagatik eta, beste alde batetik, diru-sarrerren zenbatekoa maila altuan mantentzeagatik (diru-sarrerren zenbatekoa 2019an baino %20 gutxiago izan da).





### Autofinantzaketa orokorra - Donostia Kirola



### Autofinantzaketa funtzionala - Donostia Kirola








## **PERTSONAK, DONOSTIA KIROLAREN TALDEA**

2020rako pertsonen kudeaketan ezarritako helburu nagusietako bat Donostia Kirolean lan egiten duten pertsonen bitartekotasun-tasa altua jaitea zen, egindako erretiroen eta hainbat urtetan lan-eskaintza publikoak egiteko ezintasunaren ondorioz. 2020an instalazioen arreta eta kontrolerako 21 lanpostu betetzeko asmoa zegoen, eta, horrekin, bitartekotasunaren portzentajea nabarmen jaitea. Pandemiak, berriz ere, hilabete batzuetako atzerapena ekarri du prozesu honen amaieran.

Bestalde, 2020an egindako lan-giroari buruzko inkestan, pertsonen balorazioak hobetu egin dira hainbat arlotan (barne-komunikazioa, lan-giroa, lan-baldintzak...)








## **DONOSTIA KIROLA, SOZIALKI KONPROMETITUTAKO ERAKUNDEA**


Ardatz estrategikoetako baten arabera, Donostia Kirolak hainbat ekimen garatzen ditu pertsona guztiek kirola egiteko aukera izan dezaten, edozein dela ere haien baldintza ekonomiko edo soziala, eta, horrez gain, kirolaren bidez pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko programak garatzen ditu. Horren adibide dira Kirol Txartel Solidarioa, Kirol Txartel Soziala, harrera-etxeekin egindako hitzarmenak, errefuxiatuak zaintzen dituzten erakundeak, etab....

Jarduera horiek guztiak Balantze Soziala deitu dugunari gehitzen zaizkio, hau da, zuzenean bideratutako zenbatekoen eta ekimen horien ondorioz sartzen ez direnen batura. Adierazle horren igoera etengabea izan da azken urteetan, baina 2020an instalazioen itxierak egindako ekintza gutxiago egin direnez, jaitsi egin da balantze sozial horren zenbatekoa.



## KIROLEAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO GURE APUSTUA


Euskara hutsean ematen diren ikastaroetako parte-hartzea etengabe hazten ari da, eta %60ko helburura hurbiltzen ari da, batez ere euskarazko ikastaroen eskaintza handitzeko UDA kanpaina sartutako neurrien ondorioz. Datu hori alde batera utzita, esan behar da Kirol Ekintzak kanpaina, euskara hutsean ematen diren ikastaroek gain, ikastaro bakoitzaren euskara-maila ere aztertzen dela, eskolak talde bakoitzaren hizkuntza-errealitatera egokitzeko.






## INGURUMENAREKIKO DUGUN KONPROMISOA


Donostia Kirolak eskaintzen dituen kirol-zerbitzu eta instalazioen ingurumen-jasangarritasuna da gure helburu estrategikoetako bat. 2016. urtean energia kudeatzeko lehiaketa berria esleitzeak kontsumoak nabarmen murriztea ekarri zuen, ekipoa berritzeko inbertsioengatik, eta, bereziki, CO2 emisioak murriztea, kontratatutako energia guztia iturri berriztagarrietatik baitator.




Argi denez, 2020an izandako instalazioen erabilera txikiagoak eta zenbait kontsumo finkoak mantentzeak (baita instalazioak itxita ere), erabilera bakoitzeko adierazteko emaitzak okerragoak izatea berekin ekarri zuten. Hala ere, kopuru absolutuetan, 2020an instalazioek jarduera txikiagoa izan dute, eta, ondorioz, %23 jaitsi dira atmosferara isurtzen diren CO2-emisioak.



Zenbaki absolutuetan, 2020an instalazioetan izandako jarduera txikiagoaren ondorioz, 2019an baino %25 energia gutxiago kontsumitu zen.



Zenbaki absolutuetan, 2020an instalazioetan izandako jarduera txikiagoaren ondorioz, 2019an baino %22 ura gutxiago kontsumitu zen.




## ...ETA BETI HERRITARREN ZERBITZURA

## GURE ERABILTZAILLEN GOGOBETETASUNA BILATZEA


Herritarrei eskaintzen diegun zerbitzua etengabe hobetzea da gure kudeaketa-ereduaren oinarrietako bat. Horregatik, interes-taldeen gogobetetasuna erregulartasunez neurtzen dugu, haien eskaerak hobeki atzemateko eta haien premia nagusiei erantzuten saiatuko diren hobekuntza-planak egiteko.

Alde horretatik, Kirol Ekintzak eta UDA kanpainak Donostia Kirolak eskaintzen dituen zerbitzuen artean balorazio altuenak jasotzen dituzte, 10etik 8tik gorako balorazio orokorrekin. Instalazioei, langileei, ordutegiei, garbiketari eta tramiteak, balorazio onagatik nabarmentzen dira. Aitzitik, gimnasioek balorazio apalenak jasotzen dituzte, 6tik gora bada ere. Kluben eta ikastetxeen kasuan, oro har, balorazioak apalagoak dira, bereziki dirulaguntzen atalean.






### Donostia Kirolaren zerbitzuen balorazioa - 2020




### KIROL EKINTZAK 2019/20







### UDA 2020 - Gogobetetze inkesta



### KIROL KLUBAK- 2020





## **HERRITARREKIKO KOMUNIKAZIOA, HURBILTASUNAREN ETA GARDENTASUNAREN BERMEA**

Herritarrekiko komunikazioa etengabe hobetzea eta Donostia Kirolarekiko harremana erraztea da erakundearen helburu estrategikoetako bat. Hori dela eta, azken urteotan kanal anitzeko komunikazioa jarri da abian (webgunea, buletin digitalak, instalazioetako pantailak, sare sozialak...), eta Donostia Kirolak eskaintzen dituen izapide eta zerbitzu nagusiak digitalizatzeko prozesua garatu da. Hori dela eta, lau urtean izapide guztien %71 (erreserbak, ikastaroetan izena ematea, Kirol Txartelaren altak, Kirol Ekintzak Aukeran...) on line egiten dira.

Prozesu horretan, garrantzi berezia du 2020an web-gune berria abian jartzeak, gailu mugikorretara egokitua eta web guneko harpidedunaren eremua nabarmen garatua. Hori dela eta, nabarmen hazi dira ikusitako orrialdeak, hiru milioi baino gehiago 2020an. Sare sozialen bidezko komunikazioaren areagotzea ere islatzen da argitalpenen zabalkuntza

